



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Vocalia Taldeak bere *There is no rose* kontzertua eskainiko du Arriaga Antzokian, Gabonetarako musika zirraragarriaz betetako emanaldia

- Basilio Astúlezek zuzendutako abesbatzak Benjamin Brittenen *A Ceremony of Carols* obra interpretatuko du; baita Johannes Brahmsen abesbatza, harpa eta bi tronparako idatzitako *Vier Gesänge Op.17* bilduma; eta konposizio berri bat, *Urtats elur*, Xabier Sarasolarena.
- Kontzertu hau datorren asteartean (abenduak 20) arratsaldeko 19:30ean izango da, eta bizitzarako, ilusiorako eta itxaropenerako ereserkia izan nahi du, estimuluz eta emozioz betetako etorkizun bati begira.

Bilbon, 2022ko abenduaren 16an. – Arriaga Antzokiak datorren asteartean, abenduaren 20an, Vocalia Taldea emakumezkoen abesbatzak eskainiko duen Gabonetako kontzertu ederra hartuko du. *There is no rose* izeneko emanaldian, **Basilio Astúlezek** zuzendutako taldeak aurkeztuko duen programaren muina **Benjamin Britten** britainiar konpositorearen *A Ceremony of Carols* suiteak osatzen du. Mesiasen etorreraren aurrean bizitzari eta alaitasunari eskainitako kantua da, erritmo desberdinez, kanon biziz eta melodia soilez betea eta nostalgia-kutsu bat ere baduena. Piezaren bederatzi zatiek marrazturiko paisaia, korua eta harpa urte berriaren etorreraren pozetik neguko gau hotz eta iluneraino igaroko dira, Jainkoaren jaiotzak dakarren Satanasen aurkako borrokatik igarota. Obra hasi eta ixten duen hotsandiko prozesio-kantu batek lagundu egiten du bizi-zikloaren metafora musikala sortzen, betiereko itzulera eta heriotzaren eta bizitzaren arteko oreka irudikatuz.

Pieza enblematiko horri ekin ziotenean, gauza bakan eta berri batekin osatu nahi izan zuen Vocalia Taldeak, eta horregatik eskatu zioten **Xabier Sarasola** euskal konpositoreari pieza bat idatz zezan proiekturako. Hala, John Rutter konpositoreak *Dancing Dayrekin* egin zuen bezala, Brittenek *A Ceremony of Carols* idatzi eta hogeita hamar urtera, Xabier Sarasolari emakumezkoen abesbatzarako eta harparako suite berri bat sortzea proposatu zioten, inspirazio gisa Brittenen obra ospetsua hartuta. Hortik sortu zen *Urtats elur* lana, zeinetan Xabier Sarasolak, bere ikuspegi pertsonaletik, Gabonetako musika eta Euskal Herrian urte berriari ongietorria emateko erabiltzen diren tradizioak bisitatuko baititu, musika-abentura hau are bereziago bilakatuta.

Kontzertuaren egitaraua osatuko du **Johannes Brahms** musikagile alemaniarraren lau abestiz osatutako abesbatza, harpa eta bi tronparako *Vier Gesänge Op.17* bilduma bikainak. Hanburgoko Emakumezkoen Abesbatzaren zuzendari izan zen garaian —ia bere konposizio-ibilbidearen hasieran— idatzitako lau abesti horiek ezin hobeto erakusten dute maitasun erromantiko eta oinazetsua, beti zorizaiztoko patuari,

oroimenari eta heriotzari lotuta egoten dena. Brahmsen musika jartzen die askotariko jatorriak dituzten testuei, elkarrekin nostalgia-unibertso sakon eta tragikoa sortzeko.

Vocalia Taldeari buruz

2000. urtean sortu zen Vocalia Taldea emakume abesbatza, egungo zuzendari Basilio Astulezen ekimenez. Vocalia Taldeak bidea ematen die Euskal Herriko zenbait emakume musikari profesionalen erronka eta kezkei. Taldearen asmoa da ahots-talde egonkor bat izatea, ekin diezaiokeena ohiko programazioetan nekez entzun daitekeen erreperitorio bati, musika eta ahots aldetik exigentzia-maila handikoa delako.

Gaur egun, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa eta Errioxako batz besteko 36 abeslarik osatzen dute Vocalia Taldea, den denak eskarmentu handikoak abesbatza musikaren alorrean. Programazio ausartak eta eszenaratze zainduak bitarte, taldea erreferente bihurtu da egungo musika korralaren munduan.

Vocalia Taldeak a cappella musika jorratzen du batez ere, Euskal Herrikoa zein nazioartekoa, eta garai klasikoetatik hasi eta musika garaikideraino. Horrez gain, XX. eta XXI. mendeetako erreperitorioen ikerlan sakona egiten du, eta musika-lan sortu berriekin aberasten du bere erreperitorioa, abangoardiako konpositoreen ekarpenak lagun.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 18 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

There is no rose

Emakumezkoen abesbatza: **Vocalia Taldea**

Zuzendaria: **Basilio Astúlez**

Harpa: **Francesca di Nicola**

Tronpa: **Oliver de Castro**

Tronpa: **Elena Angulo**

Sopranoa: **Jaurne Gaminde**

Sopranoa: **Idoia Aguirre**

Altua: **Saioa Goñi**

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus